

## A.7 ARIKETEN AZALPENA

### ETA ZUK, ZER JATEN DUZU?

Haurrek litxarreriak eta “zabor jana” esaten zaiona (hanburgesak, patata frijituak, opilak...) jateko duten zaletasuna arazo larria bihurtu da. Aurreko ariketan esan dugun bezala, produktu horiek noizbehinka jateak ez dakar kalterik, baina, zoritxarrez, elikadura mota hori oso modan dago gaur egun.

Ariketa hau bi zatitan banatuko dugu. Lehenengoan (A ZATIA), jateko ohiturez gogoeta egitera bultzatuko ditugu haurrak. Maisuak janari osasuntsuak dakartzan onurak azalduko dizkie hurrei, bestelako produktuak noizbehinka jan daitezkeela ere esanez.

Ariketaren bigarren zatian (B PARTEA), haurrek kontsumitzen dituzten produktuak nola bilduta dauden edo zer nolako ontzietan dauden aztertuko dugu. Jostailuak, gozokiak...etab. erakargarriagoak izan daitezen paper, beira, plastiko... asko erabiltzen denez, garrantzia handia du material horiek birziklatzeko edo berriz erabiltzeko premiaren kontzientzia sortzea haurrengan. Esan gabe doa



lehenetasuna duela produktu horiek, ahal den neurrian, gutxiago kontsumitzeko saioak.

Fitxa betetzerakoan eskuarki erabiltzen dituzten jostailuen eta litxarrerien paketeak eta estalkiak gogoan har ditzatela eta marraz ditzatela eskatuko diegu hurrei. Bildutako informazio guztiarekin bateratze lana egingo da.

- **Ariketa egiteko behar den materiala:**
- Lana egiteko A eta B fitxak (ikasleak betetzeko).
- **Tenporalizazioa: 60'**

**B ARIKETA BILDUMA****ETA ZUK, ZER JATEN DUZU?****PENTSATU EGUNERO JATEN DITUZUN GAUZETAN!**

ARIKETA 5

Ler gosaldu duzu gaur? .....

.....

Ler bazkaldu zenuen atzo? .....

.....

Ler afaldu zenuen? .....

.....

Gaur zer ekarri duzu jolasordurako? .....

.....

Mairiz jaten duzu fruta? .....

Zenbat gozoki eta opil jaten dituzu astean zehar? .....

.....

Zergatik gustatzen zaizkizu horrenbeste? Zer gustatzen zaizu gehiago, gozokia, opila edo barruan dakarren pegatina? .....

.....

.....

Gustatzen zaizu noizean behin hamburgesak eta pizsak jatera joatea? Zergatik? .....

.....

Jaten dituzun gauza guztien artean, zein duzu gustokoena?

.....

**B ARIKETA BILDUMA****ETA ZUK, ZER JATEN DUZU?**

Marrartu itzazu ezagutzen dituzun jostailu eta gozokien estalkiak!. Gero:

Lirkulu gorri batekin inguratu paperezko estalkiak.

Lirkulu urdinarekin, kartoizkoak.

Lirkulu berdearekin, beirazkoak (kristala).

Lirkulu horiarekin, plastikozkoak.

Lirkulu marroiarekin, gainerakoak.

Zeintzuk birzikla daitezke? .....

.....

Eta zeintzuk erabil daitezke berriro? (Esan zertarako) .....

.....